

2018/2019 ikasturteko

**EKINTZA**  
**SINDIKALEKO**  
**TXOSTENA**

2019ko uztaila



[www.lab.eus](http://www.lab.eus)





# AURKIBIDEA

1.- Sarrera .....	5
2.- Prekarietateari aurre egiteko gero eta borroka gehiago lantokietan .....	6
2.1.) Tresna klasikoak eta molde berriak martxan, borroka inklusiboak helburu .....	6
2.2.) Sektore mailako borrokak .....	7
2.3.) Enpresa mailako borrokak .....	8
2.4.) 2018/2019 kurtsoa datuetan .....	12
2.5.) Enplegu duinaren aldeko aldarrikapenak .....	12
2.6.) Borroka feministan urratsak .....	12
2.6.1.) Martxoaren 8ko Greba Feminista .....	12
2.6.2.) Sektore feminizatueterako aldarrikapen taula morea .....	13
2.6.3.) Soldata arrakala .....	13
2.6.4.) Aniztasun sexu-generikoa .....	13
2.7.) Lan osasuna: emakumeon gaixotasunak bistara .....	13
2.7.1.) Apirilak 28 .....	13
2.7.2.) Maiatzak 28 .....	14
2.8) Euskara .....	14
2.9) Estatalizazioaren kontrako borroka .....	14
3.) Aliantzak .....	14
4.) Klase subjektua berrosatzeko lanean .....	15



## 1.-SARRERA

Hauteskunde sindikalak markatutako kurtsoa bukatzeaz dago. Ekintza sindikalean urtean zehar egindako ibilbide eta ekimenekin txostena da honakoa, kurtsoko argazkia atera eta balantzea egiteko baliagarri.

Azken ikasturte bietan borroka ugari sortzea lortu dugu. Goranzko joera nabarmena ikusten da. Borrokek biderkatzen ari dira, gero eta gehiago, grebaren presentziarekin (Lan Harremanen Kontseiluaren arabera EAEn 2018an grebak %11 igo ziren eta 2019ko lehen hiru hilabeteetan %19).

Aipatutakoari bigarren ideia nagusi bat gehitu behar zaio: borroka eta grebaren aldeko hautuaren ondorioz, gero eta langile gehiagok dute hitzarmena indarrean. Lan Harremanen Kontseiluaren datuen arabera %14'5 igo da hitzarmena indarrean duten langileen kopurua EAEn.

Bide onetik goaz. Pairatzen ari garen egoerari (prekariatatea, aldebakartasuna, inposaketak, blokeoa, patronal eta botere politikoaren konplizitatea...) aurre egiteko borroka eraginkorrak egiten ari gara. Eraginkorrak diogu, izan ere, zenbat eta borroka gehiago piztu, orduan eta babes handiagoa dute langileek. Prekariatateari aurre egiten dioten hainbat eta hainbat akordio lortu dugu aurten.

Sektore feminizatuetako hainbat borroka: Gipuzkoako Helduen egoitzak, epaitegi eta komisaldegietako garbiketa; Bizkaian Loramendi, etxez etxeko laguntza, esku hartze soziala edota GAME; EAEn Gizarte ekimeneko ikastetxeak edota DIA; Araban Simply eta Palacio Elorriaga; Nafarroan Pauma, Elkarkide, Xilema, Carrefour etab.

Sektoreko borroka ugari sustatu dugu eta hainbat hitzarmen berreskuratzea lortu da, LABek defendatzen dituen edukiekin, honakoak adibidez:

Esku-hartze soziala (Bizkaia)	Soldata igoera eta jardunaldi murrizketa
Gasolindegia (Bizkaia)	KPIarekin harremana berrartu
Kontserberak (Bizkaia)	Estatalizaziori aurre egin
Anbulantziak (EAE)	Ekiparazioa + eremuaren sorrera
Kudeaketa zuzena (EAE)	Homologazioa

Une honetan, Hego Euskal Herrian, gutxienez 12 borroka ditugu irekiak sektore hitzarmenen alde (ikus taula 2. ataleko taula).

## 2.) PREKARIETATEARI AURRE EGITEKO GERO ETA BORROKA GEHIAGO LANTOKIETAN

2017-2018 ikasturtean gatazka, borroken eta greben berpiztea lortu genuen. 2018-2019 ikasturterako bide horretan beste pausu bat eman dugu, langileak pairatzen ari diren prekarizazio eta pobretzeari aurre egiteko eta bizi eta lan-baldintza duinak lortzeko.

Borroka asko piztu dugu; lan zentro eta sektoreko borroka uztartzea lortu dugu; negoziozko kolektiboari lotutako borroka asko izan dugu aurten, baita prekariedade egoerei aurre egiteko borroka ugari ere.

Ikasturte honetan sektore eremua berreskuratzeko borroka ugari egin ditugu, baita hitzarmenak lortu ere, patronalaren kontrakotasunak gaindituz.

Prekariedadearen kontrako borroka:

Loramendi	Lanaldi partzialak
Simply	Lan-baldintza prekarioak
Adecco-ABC	Azpiktratatako lan-baldintza prekarioak
Grupo Velatia	Ebentualitatea, kategoriak, mutualitateak
Pauma	Ebentualitatea
Xilema	Lan-baldintza prekarioak
Huerta de Peralta	Lan-baldintza oso prekarioak + esplotazioa
EUSTAT	Lan-baldintza prekarioak: lanaldi partziala
Osakidetzako Lehen Mailako Arreta	Ratioak, lan zama
DIA	Lan-baldintza prekarioak
Aniser	Lan-baldintza prekarioak + estatalizazioa
Tecman	Azpiktrata: lan-baldintza prekarioak
Berriak supermerkatuak	Lanaldia
Osakidetzako larrialdiak	Lan-baldintzak duindu
Baionako ospitalea	Lan-baldintzen kaskartzea

### 2.1.) TRESNA KLASIKOAK ETA MOLDE BERRIAK MARTXAN, BORROKA INKLUSIBOAK HELBURU

Borroka eta greba eraginkorrak ditugu helburu, patronalari ahalik eta presiorik handiena eta langileei ondorioz arinenak eragiten dieten moldeak. Pizten edo piztera goazen borroka gehienetan grebaren presentzia dago.

Aldi berean, borroka molde berrietan sakontzen ari gara. Borroka inklusiboak izatea eta langileen artean atxikimendua izatea bilatu dugu, langileen protagonismoa bermatuz. Gure eskuetan dagoen beste borroka molde bat Pikete feminista da. Sexu-generoarekin lotura duten lan gatazka azalarazteko, hauen salaketa publikoa egiteko, ekintza sindikalean praktika feminista txertatzeko eta emakume langile eta Mugimendu Feministaren arteko aliantzak gorpuzteko ekintza zuzena ahalbidetzeko iaz sortutako tresna da. Kurtso honetan Emakunden, M8an hainbeste tokitan, Zaldibarreko Mear enpresan eta Gasteizko Palacio Elorriagan jarri dugu martxan.

Lan esparru formaletik urrun geratzen zaizkigun sektoreengana gerturatzeko eta hauen egoera saltzeko bitarteko bat da: etxeko langileak, merkataritza txikia, garbitzaileak, bakarrik lan egiten duten emakumeak... baita gatazkan diren enpresetan ekimen propioak egiteko ere. Aurten ugaritu egin dira salaketa ekimenak: soldata arrakala salatzeko, Palacio de Elorriaga hotelean haundun zegoen langilearen kaleratzea salatzeko,...

Langileen aktibazioa da LABen ekintza sindikal berriaren zutabeetako bat. Gure lehen lerroan borrokaren aldeko hautua nabaria da, eta gure afiliazioa ere lerro honetan dago. Badago giro berri bat langileen artean egoerari aurre egiteko. Langileak nazkatuta daude gaurko egoerarekin, suspertze hotsak etengabe entzun bai, baina inongo hobekuntzarik ez baitute ikusten.

Hau oso nabaria izan da batez ere sektore feminizatueta, baina gizonak gehiengo diren eremuetara ere zabaltzen da.

## 2.2.) SEKTORE MAILAKO BORROKAK

### ARABA

Borroka	Sekt. feminizatua	Arrazoa	Irekita/itxita	Grebaren presentzia
Metala		Hitzarmena	Irekita	

### BIZKAIA

Borroka	Sekt. feminizatua	Arrazoa	Irekita/itxita	Grebaren presentzia
Etxez-Etxeko Laguntza Zerbitzua	F*	Hitzaarmena	Irekita	Greba
Esku-hartze soziala	F*	Hitzaarmena	Itxita	Lanuzteak
Bulegoak		Hitzaarmena	Irekita	Greba
Gasolindegia		Hitzaarmena	Itxita	
Kontserberak	F*	Hitzaarmena	Itxita	Greba (deialdia)
Kiroldegia		Hitzaarmena	Irekita	Greba
Metalgintza		Hitzaarmena	Irekita	Greba

### GIPUZKOA

Borroka	Sekt. feminizatua	Arrazoa	Irekita/itxita	Grebaren presentzia
Helduen egoitzak	F*	Hitzaarmena	irekita	Greba
Esku-hartze soziala		Hitzaarmena	Irekita	
Elikagaien merkataritza	F*	Hitzaarmena	Irekita	
Papergintza		Hitzaarmena	Irekita	Greba
Grafikagintza		Hitzaarmena	Irekita	Greba

### NAFARROA

Borroka	Sekt. feminizatua	Arrazoa	Irekita/itxita	Grebaren presentzia
Esku-hartze soziala		Hitzaarmena	Irekita	

## EAE

Borroka	Sekt. feminizatua	Arrazoa	Irekita/itxita	Grebaren presentzia
Gizarte ekimeneko ikastetxeak	F*	Hitzarmena	Irekita	Greba
"ErljiOFF" – Irakaskuntza		Eredua	Irekita	
Anbulantziak		Hitzarmena	Itxita	Greba *
Kudeaketa-zuzeneko eskola-jangelak	F*	Hitzarmena	Itxita	Greba (deialdia)

## 2.3.) ENPRESA MAILAKO BORROKAK

### ARABA

Borroka	Sekt. feminizatua	Arrazoa	Irekita/itxita	Grebaren presentzia
Simply	F*	Jai-egunak	Itxita	
FCC kale-garbiketa		Hitzarmena / Kaleratzeak	Itxita	Greba
Biocompost		Estatalizazioa	Irekita	
TUVISA		Hitzarmena	Itxita	Greba
Palacio Elorriaga	F*	Kaleraketa – Diskriminazioa (Haurdun)	Itxita	Pikete Feminista
BSH		Salmenta	Irekita	Greba
Ferrovial Michelin		Hitzarmena	Irekita	
Mercedes		Kaleratzeak	Irekita	Lanuzteak
Auria		Aldi Baterako EEE	Irekita	
Fiasa		Kaleratzeak	Itxita	
Olazabal y Huarte		Hitzarmena	Itxita	Greba (deialdia)
Tuboplast		Hitzarmena	Irekita	
Alestis		Kaleratzeak	Itxita	Lanuzteak
Estampaciones Rubi		Hitzarmena	Itxita	Greba (deialdia)
Aiala Vidrio		Hitzarmena	Itxita	Greba
Tubos Reunidos		ERTE	Itxita	
Berriak supermerkatuak	F*	Prekariatatea	Itxita	Greba



## BIZKAIA

Borroka	Sekt. feminizatua	Arrazoia	Irekita/itxita	Grebaren presentzia
Loramendi	F*	Prekariatatea	Itxita	Greba
Lantegi Batuak		Hitzarmena	Itxita	Greba
ST3		Kaleratzeak	Itxita	Greba
Garbaldi Foru Aldundia	F*	Ekiparazioa	Itxita	Greba
HyM	F*	Kaleraketak	Itxita	Greba
Simply	F*	Prekariatatea	Itxita	Greba (deialdia)
C.C. Goñi (Francisco de Goya ikastetxeko jantokia)	F*	Ordu murrizketa	irekita	Greba
Bilbobus		Hitzarmena	Irekita	Greba
Pesalur		Hitzarmena	Irekita	Greba
EMB		Hitzarmena	Irekita	Greba
Gam Txorierr		Hitzarmena	irekita	Greba
Bilboko Udaleko 010 zerbitzua (Lanalden)	F*	Hitzarmena	Irekita	Greba
Applus / Novatec		Paktua	Itxita	Greba (deialdia)
Game		Prekariatatea	Itxita	
Metal Performers		Kaleratzeak	Itxita	Lanuzteak
Tenneco Automotion		Hitzarmena	Itxita	Greba (deialdia)
Odi Bakar		Konkurtoa	Irekita	Greba
Talleres Ermua		ERE	Itxita	
M. Mecar		Diskriminazioa	Irekita	
WEC		Hitzarmena	Irekita	
Garita		Kaleratzeak	Itxita	
Foseco		Deslokalizazioa	Itxita	Greba
Aludium		Kaleraketak	Itxita	
Fundiciones Garbi		Konkurtoa	Irekita	Greba
GS Hydro		Paktua	Irekita	Greba
Flexix		Externalizazioa / Azpikontratazioa	Itxita	
Tecuni		Kaleratzeak	Itxita	Greba
GTO		Hitzarmena	Irekita	Greba
Talleres Berasategi		Hitzarmena	Itxita	Greba
Sunrise Medical		Hitzarmena	Itxita	Greba
Grupo Velatia		Prekariatatea	Irekita	
GTH		Hitzarmena	Irekita	Greba
Alconza		Hitzarmena	Irekita	
Aubide aldi baterako enpresa elkartea		Pleguak	Irekita	
Domiberia		Hitzarmena	Irekita	Greba
ITP		Hitzarmena	Irekita	Lanuzteak
La Naval + Azpikontratak		Enplegua	Itxita	
AENA Loiu		Kontratazioa	Irekita	Greba
PCB - Precicast		Hitzarmena	Irekita	Greba

## GIPUZKOA

Borroka	Sekt. feminizatua	Arrazioa	Irekita/itxita	Grebaren presentzia
Foru Aldundia		Hitzarmena	Irekita	
Egogain	F*	Ratioak + Zerbitzua	Irekita	
Gureak		Hitzarmena	Irekita	Greba
Etkez-Etxeko Laguntza Zerbitzua - Donostia	F*	Hitzarmena	Irekita	Greba
Epaitegi eta komisaldegietako Garbiketa	F*	Hitzarmena	Irekita	Greba
Ordiziako Majori Kiroldegia		Pleguak - Hitzarmena	Itxita	
Tres Mares S.A. - Zestoako Bainuetxea	F*	Hitzarmena	Itxita	
Guascor		Paktua	Irekita	
Glual		Eskubide sindikalak	Irekita	
Glual		Paktua	Irekita	
Ruedas Roar		Nominak	Itxita	Lanuzteak
Mecanizados Herro		Paktua	Irekita	Greba (deialdia)
Alcad		Hitzarmena	Irekita	Lanuzteak
Geka		Lehiaketa	Irekita	Lanuzteak
Ikor (I)		Kaleratzeak	Irekita	
MAN Ikaztegieta		Paktua	Itxita	Greba (deialdia)
Arcelor		Lan-baldintzen aldaketa	Itxita	
Indar		Paktua	Itxita	Greba (deialdia)
CAF		Nazioarteko elkartasuna	Itxita	
CAF		Lan osasuna - Amianto	Itxita	Lanuzteak
CAF		Hitzarmena	Irekita	Lanuzteak
Adecco - ABC		Prekariatatea- Ekiparazioa	Irekita	Greba (deialdia)
Schaeffler Iberica		Hitzarmena	Itxita	Greba (deialdia)
Laga		Hitzarmena + soldatak	Soldatak lortuta	Greba (deialdia)
Industrias FER		Hitzarmena	Irekita	Lanuzteak
Hazielur		Hitzarmena	Irekita	Greba (deialdia)
Alurecy		Enplegua	Irekita	
Tecman		Prekariatatea	Irekita	Greba

## NAFARROA

Borroka	Sekt. feminizatua	Arrazoia	Irekita/itxita	Grebaren presentzia
Ilunion Navarra			Itxita	Lanuzteak
Padre Menni	F*	Aldi Baterako EEE	Itxita	
Elkarkide		Hitzarmena	Itxita	Greba
Anfas	F*	Hitzarmena	Irekita	
Xilema / Nuevo Futuro		Pliegoak	Itxita	Lanuzteak
Pauma	F*	Prekariatatea	Itxita	Lanuzteak
Anasaps	F*	Kaleratzea	Itxita	Lanuzteak
Ilunion Lavanor		Hitzarmena	Itxita	Lanuzteak
Xilema	F*	Prekariatatea	Itxita	
Idea Servicios Socio Sanitarios – Santa Zita Helduen egoitza	F*	Hitzarmena	Irekita	Lanuzteak
Huerta de Peralta		Prekariatatea	Itxita	Greba
Carrefour – Las Cañas	F*	Prekariatatea	Itxita	Lanuzteak
ISNN		Ordainketak	Itxita	Greba (mehatxua)
Gorvi		Hitzarmena + kaleratzeak	Itxita	Lanuzteak
Miasa		EEE	Itxita	Lanuzteak
Volkswagen		Aldi Baterako EEE	Irekita	
Volkswagen Gerriko		Aldi Baterako EEE	Irekita	
Comercial Gazpi		Kaleratzeak	Itxita	
Aniser		Prekariatatea	Itxita	Greba (deialdia)
Gamesa Aoiz		Kaleratzeak	Itxita	Lanuzteak
Arcelor Legasa		Kaleratzeak	Itxita	Greba

## EAE

Borroka	Sekt. feminizatua	Arrazoia	Irekita/itxita	Grebaren presentzia
Eustat		Prekariatatea	Itxita	Greba
Osakidetzako Larrialdiak		Prekariatatea	Itxita	
Zuzenean		Kontziliazioa	Irekita	
Osakidetzako Lehen Arreta		Prekariatatea + zerbitzua	Irekita	Greba
Lorea – Osakidetza		Ratioak	Irekita	
Dia	F*	Prekariatatea	Itxita	Greba
Dia	F*	EEE	Itxita	Greba

## IPAR EUSKAL HERRIA

Borroka	Sekt. feminizatua	Arrazoia	Irekita/itxita	Grebaren presentzia
Baionako ospitalea		Prekariatatea + zerbitzuaren kalitatea	Irekita	Greba
Elkargoa		Lan-baldintzen armonizazioa	Irekita	Lanuzteak

## 2.4.) 2018/2019 KURTSOA DATUETAN

**133 borroka** piztu dira. Aurreko ikasturtean, 120 izan ziren.

**65 borroketan greba** erabili da. **23 borroketan lanuzteak**. Beraz greba-lanuzteen presentzia borroken % 66an egon da (%54 aurreko ikasturtean).

**63 borroka itxita** daude, emaitzekin.

**70 borroka irekita** daude.

**Sektore mailako borroka 19** izan dira. **7 feminizatuak**, horietariko **5 grebak** lagunduta.

**Enpresa mailako borroka 114** izan dira. **22 feminizatuak**, horietariko **16 grebak** lagunduta.

## 2.5.) ENPLEGU DUINAREN ALDEKO ALDARRIKAPENAK

### BOSTEKOA

2015ean aurkeztu genuen aldarrikapen taularen berri dugu aurten. "Bostekoa" izenez ezagutua, bost zutabe planteatzen genituen orduan, prekaritatearen aroari, enplegu duinaren defentsatik aurre egiteko. Enplegu duinerako neurri sorta da, lan merkatuari begirakoak.

1. 1.200 eurotako gutxieneko soldata eta 35 orduko lan astea denontzat.
2. Diskriminazio oro amaitu: berdintasuna kontratazioan, soldatetan, lanaldian. Kontziliazio eta erantzunkidetasun neurriak.
3. Prekarizazio eredu oro ezabatu: azpikontratazioa, ustezko autonomoak, bekadunak...
4. Lanetik etxera bizirik eta osasuntsu bueltatzeko eskubidea.
5. Hemen lan egin, hemen erabaki. Estatalizazioari ez.

## 2.6.) BORROKA FEMINISTAN URRATSAK

### 2.6.1.) MARTXOAREN 8KO GREBA FEMINISTA

Aurtengo Martxoaren 8a oso arrakastatsua izan da. Euskal Herrian feminismoak duen potentzialitatea eztabaidaezina da. Aurtengo kokapenak eta irakurketak aukera asko eman digu diskurtsoa zein praktika garatzeko, orain eta hemen, Euskal Herrian. Guk, sindikatu bezala, hainbat kontu jarri ditugu agendan ere, emakumeen egoerak iraultzeko garrantzitsuak



direnak: sexuaren araberako lan banaketaren salaketa, soldata arrakala, zaintza lanak lan merkatuan, berdintasun planak eta beraien eragina, indarkeria matxista lan munduan, erantzunkidetasuna eta zaintza lanaren banaketa... besteak beste.

### 2.6.2.) SEKTORE FEMINIZATUETARAKO ALDARRIKAPEN TAULA MOREA

M8 greba feministaren ostean, eremu sindikaletik borroka feministari ekarpen propioa egin nahi izan genion. M8ak, emakumeok bizi dugun diskriminazio egoerei aurre egin eta LABek bere eredu sindikal feminista garatzen jarraitzeko baldintza berriak sortu zituela esatearekin batera, honako aldarrikapen eta borrokek mahai gainean jarri genituen, emakumeontzat ere enplegu duina bermatzeko borrokari lotuta.

- Soldata duina: 1.200 eurotako gutxieneko soldata.
- Lan guztien aitortza politiko, ekonomiko eta soziala.
- Diskriminazio egoerekin amaitzeko neurriak.
- Lan osasunari lotutako aldarriak.
- Negoziazio kolektiborako marko propioarena.
- Zerbitzu publikoen pribatizazio eta merkantilizazioarekin amaitu.
- Zaintzarako euskal sistema sortu.

### 2.6.3.) SOLDATA ARRAKALA

Pasa den urtean, LABetik enpresak interpelatu genituen eta aurten *"Soldata arrakala ez da kopuru bat, arazo politikoa dela"* salatzeko instituzioak interpelatu ditugu zuzenean: Eusko Jaurlaritzan, Nafarroako Gobernua, Emakunde eta Nafarroako Berdintasunerako Institutua. Interpelazioaz aparte, Emakunderen egoitza okupatu eta batzar bat egin dugu bertan, gure aldarrikapenak ikustarazteko.

### 2.6.4.) ANIZTASUN SEXU-GENERIKOA

LGTBI+ fobia aurrean, pauso berri bat eman dugu, eta Confebasken eta CENen enpresetan protokoloak eta gidak derrigorrez ezartzeko eskatu dugu. Barne formazioari begira Miquel Missérekin formakuntza saio bat egin dugu Iruñean. Eta kurtso bukaeran, ekainaren 28an, formakuntza mintegi bat ere bai.

## 2.7) LAN OSASUNA: EMAKUMEON GAIXOTASUNAK BISTARA

### 2.7.1.) Apirilak 28

Genero ezberdintasunak lan osasunean eta emakumeek gehien pairatzen ditugun lan arriskuak azalarazteko helburua jarri genion egun honi.

### **2.7.2) Maiatzak 28**

Emakumeen Osasunaren Aldeko Nazioarte Ekintza eguna dela eta, testuingurua baliatuko dugu jardunaldi bat antolatzeko, emakume delegatu eta liberatuei zuzenduta, emakumeen\* laneko gaixotasunaz aritzeko genero ikuspuntutik.

## **2.8) EUSKARA**

Euskaraldia eta Korrika direla eta euskalgintzarekin aliantzak sakontzeko aukera izan dugu.

## **2.9) ESTATALIZAZIOAREN KONTRA ETA BERTOKO EREMUAREN DEFENTSAN**

Estatalizazioa gero eta gehiago zabaltzen ari den orbana da. Datuek horrela adierazten dute eta aurtengo helburuen artean izan dugu lerro hau garatzea. Estatalizazioaren kontrako borroketan adierazgarriak anbulantzietan eta Biocompost-en egindakoak.

Estatuko Gobernuak, CCOO eta UGTekin batera, azken lan erreformari egin nahi zieten makillajea salatu nahian eta Euskal Herrian lan harreman eredu propioa behar dugula aldarrikatzeko, erakundeei zuzendutako dinamika jarri genuen martxan. Eskaera erregistratu genuen Gasteiz eta Iruñeko lege-biltzarretan, batzar nagusietan eta hiriburuetako udal batzarretan, azken lan erreforma biak errefusatzea, Lan Harremanak eta Babes Sozialerako Euskal Esparruaren aldeko jarrera, estatalizazioaren kontra agertzeko eskatuz.

Agintaldia amaitzen zegoelako hoietakoa hainbat erakundeetan ez zen lortu gure eskaera eztabaidatzea, beste toki batzuetan bai (EAEko Legebiltzarrean ez zuten onartu, Gipuzkoako Batzar Nagusietan bai).

Ikusita Sanchezek jarraituko duela estatuko lehendakari moduan, erreformak makillatzeko beste saiakera bat egongo dela aurreikus daiteke. Erreformak erreformatzeko Madrilgo Gobernuaren urratsei adi eta aurre egiteko prest izango gara, beraz.

## **3.) ALIANTZAK**

Aliantzei buruz hitz egiterakoan, sindikalgintzari dagokionez, ELAren tokian toki elkarlanerako aukerak arakatu ditugu, argi dugulako indarrak batuz lortzen eragiteko gaitasuna biderkatzea, eta langileek ere positiboki hartzen dituztelako adostasun horiek. Lan amankomuna egiteko aukera izan dugun tokietan helburuak, eta borroka/bidea adostu ditugu eta adostasun horien arabera elkarrekin aritu gara.

Bestelakoan, eremu sindikaletik haratagoko lankidetzak eta aliantzetan sakondu dugu, interesgarriak guztiak: adibidez etxeko langileen elkarte ugariarekin aritu gara, eta lanketa baterako aukerak arakatu ditugu (4.puntuak garatua). Era berean,

sexu langileekin lan egiten duten elkarteekin harremanak sendotzeko aukera izan dugu kurtso honetan, eta halaber, euskalgintzarekiko harremanean ere sakondu dugu (4. puntuan eta 2.8 puntuan aipatuak).

#### **4.) KLASE SUBJEKTUA BERROSATZEKO LANEAN**

Langile guztion oinarrizko eskubideen defentsarako tresna berriak diseinatzen aritu gara aurtan. Datorren ikasturtean, irailean, aurkeztuko dugu bitarteko horietako bat.

Sektore zehatzei begira, etxeko langileen inguruan zenbait elkarerekin harremanean sakontzeko parada izan dugu aurtengoan, eremu horretan aritzen diren elkarteekin aliantzak sendotu ditugu eta kolektibo honentzako alternatiba bat proposatu dugu, etxeko langileentzako EAeko lan hitzarmen propioa egitea. Honetarako, elkarteekin kontraste fase bat egin dugu eta egoeraren eta orokorrean zaintzaren egoera prekarioaren inguruko salaketa eta gure lan hitzarmenaren proposamena publiko egin dugu.

Bestalde, azken Biltzar Nagusian hartutako erabakiari jarraituz, sexu langileekin hurbilketa lan bat egin dugu, haiekiko gure eskaintza zehazten joateko.

Ekintza Sozialeko kideekin batera arrantza sektorean migranteek pairatzen duten egoera latza eta prekaritatearen inguruan ere lana egin da. Bermeon egindako epaiketa sozialean migranteak sektore honetan pairatzen dituzten egoera, bazterkeria eta lan baldintza kaxkarrak salatzeaz gain, kolektibo hauekin harremanak sendotzeko eta beraiek pairatzen duten egoera ezagutzeko eta eskaintza bat egiteko aukera ere sortu digu. asmoarekin. Hurrengo ikasturtean garatuko bada ere, federazio eta Ekintza Sindikaleko Batzordeko ordezkariarekin egindako lehendabiziko bilkuran positiboki baloratu da.